

Kirola

V. Quad Openak 100 bat parte-hartzaile batuko ditu asteburuan, Traña-Matienan > 13



Grebak "oihartzun zabala" izan duela diote sindikatuek

Durangaldeko enpresa erreferenteak itxita egon ziren atzo ELA, LAB, ESK, EHNE, EILAS, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek deitutako greba dela-eta. Sektore publikoan eta zerbitzuetan ere grebak babes handia izan zuela diote sindikatuek > 2



Kopla Txapelketa antolatuko dute lehen aldiz Durangaldean > 9

Eñaut Uruburuk eta Enea Pinillosek buru-belarri dihardute Durangaldeko lehenengo Kopla Txapelketa antolatzen. "Durangaldeko bertsolariak eta bertsozaleak batzea da helburu nagusia, batez ere, gure arteko harremana indartu nahiko genuke", azaldu dute antolatzaileek. Aurreratu dutenez, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen barruan, Durangaldeko bertso eskolen elkarte antolatzeko bidean dago, "eta datorren barikurako Plateruenean antolatu dugun txapelketa hau litzateke elkarlan horren lehenengo emaitza".



ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Hostoetarako haize-makina



Zulagafua



Lorezaintzarako traktorea



Gasolinazko motokultorea

Eitua Industrigunea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

Zaldibar > 4

Herritarren esker ona jasoko du Balendin Lasuenek omenaldian

Iurreta > 6

224.000 euroko isuna jarri dio udalak Adif enpresari

Izurtza > 6

Kontzertuak eta fanzine berriaren aurkezpena, gaur

Atxondo > 6

Konponketak eginda, igerilekuak zabaltzeko prest daude

Herririk herri

> DURANGALDEA

Grebak jarraipen zabala izan duela diote sindikatuek

Greba orokorrak Durangaldean oso erantzun positiboa izan duela azaldu dute ELAk eta LABek

> JONE GUENETXEA

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CNT eta CGT sindikatuek atzorako, maiatzaren 30erako, deitutako greba orokorrak "eragin handia" izan zuen Durangaldean. Eredu soziala jokoan dagoela eta, sindikatu deitzaileek "ka-leak hartzeko" deia egin zuten.

Uribarri Irigoras ELAko arduradunak jendeak mobilizazioetan parte hartu izana nabar-

Gaineratu duenez, enpresa erreferente guztiak itxi zituzten, Cemosa eta Estampaciones Bizkaia, esaterako. Deialdiak sektore publikoan ere babes handia izan zuela dio ELAk: "Durangoko Udala guztiz itxita egon da".

LAB sindikatuko Eulate Zilonizaurrekoetxeak azaldu du Eroski eta merkataritza gune handiek zabaldu izana "salagarria" dela, nahiz eta piketeak pasatu ostean itxi. Herrietako komertzio gehienak itxita egon ziren, salbuespenak salbuespen. "Durangon komertzio txikia itxita egon zen, eta egindako ahalegina eskertzekoa da, dau-den egoera zailean egonda", dio Zilonizaurrekoetxeak. Ostera, bankuak zabalik egon izana kritikatu du LAB sindikatuek.

Protesta ekitaldiak

Euriari aurre eginez, protesta ekitaldi jendetsuak antolatu ziren atzo arratsaldean, Durangon eta Elorri-
on.

Euriari aurre eginez, protesta ekitaldi jendetsuak antolatu ziren atzo arratsaldean, Durangon eta Elorri-
on.

mendu du: "Eguerdiko Bilboko manifestaziora jendetza joan zen atzo Durangaldetik. Beldur ginen, jendeak greba egin arren mobilizatuko ote zen, baina protestak oso jendetsuak izan ziren".



Goian, atzo, Elorriko manifestazioa. Behean, Durangoko protesta ekitaldia.

Kafea hartuz hausnartuko dute zaintzaile lanaren gainean

> MARKEL ONAINDIA

Datorren barikuan, ekainak 7, *Work Kafea* egingo dute Zaindu programaren barruan. Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak eratu, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenak batuko dituzte Plateruenean, 17:30ean. Bizipenak trukatu eta euren lanaz hausnartzea izango da helburuetako bat. Gainera, aditu eta politikariek ere parte hartuko dute, herritar horien beharrezan bertatik bertara ezagutzeko. "Ekintza sozialek gero eta gehiago eduki behar dituzte kontuan pertsonen beharrezan", esan du Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek. Goiztidi Diaz Durangoko zinegotzia eta Esther Alonso Zainduko arduraduna ere egon dira aurkezpenean.

80 lagun batu gura dituzte mahaian bueltan, giro lasaia. Dagoeneko 76k eman dute izena: 40 izango dira zaintzaileak, eta gainerakoak adituak, politikariak eta pertsona nagusiak.

> DURANGO

Río de Oro-Durango bultzatzeko kontzertua

Gazte batzuk urritasun psikikoa duten zortzi ume saharai udalekuan hartu gura dituzte

> JONE GUENETXEA

Durangoko gazte talde batek, Herria auzo elkarteagaz elkar-lanean eta Durangoko Udalaren laguntzagaz, urritasunen bat duten zortzi ume saharai hartuko

dituzte uda sasoiaren. Ekimen honen bidez, ume talde horrek Tindufeko kanpalekuak utziko ditu uztailean eta abuztuan, eta oporrak Durangaldean pasatzera etorriko da. Proiektuaren

alde dirua batzeko, *Bailando el silencio* musika eta dantza ikuskizuna taularatuko dute Rakel R.R. artistak eta Arymux konpainiak. Musika eta dantza-rekin, zeinuen hizkuntza uztartzen du emanaldiak. Bizkaiko antzerki eta dantza eskoletako 40 abeslari eta dantzari-entzun dezaketenak zein gorrak-igoko dira domekan Platerueneko taula gainera. Sarrerak salgai daude Iurretako Gauargi tabernan eta Plateruena kafe antzokian.

Musika Eskolako prezioak gora, eztabaida artean

> M.O.

Bartolome Ertzilla Musika Eskolako prezioak igo egin ditu udalak. Batez beste %2,2ko igoera ezarri dute, eskolako gerentzia batzordeak proposatuta. Martitzeneko udalbatza-

rrean landu zuten gaia. EAJk eta PPK babestu zuten, eta Bildu, PSE-EE eta Aralar abstentitu egin ziren. Prezio publikoen igoerak eztabaida eragin zuen.

Lau urtean ez da preziorik igo. Bilduren ustez, hori ezin da igotzeko justifikazioa izan. Arrazoi azterketa baten ondorio izatea eskatu zuen. Aralarrek esan zuen aurrekoetan neurri populistak ezarri direla, eta momenturik txarrean igo dituztela.

ALBERDI



DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz
prestatutako
janariak




Askatasun etorbidea 1 - Durango
Telefonoa: 94 681 76 58

> DURANGO

“Asko beldurtu gara suteak egon izan direnean”

DAZ alde zaharreko auzo elkarteak hamar urte bete ditu; Jose Mari Arrillaga da presidentea

> MARKEL ONAINDIA

Zelan gogoratzen dituzu DAZen hasierako sasoiak?

Xelebrea da ikustea hamar urte lehenago auzo mugimendu bat egon zela, baina ez zen elkarte bihurtu. Gure antzeko arrazioak zeuzkaten: gaueko aisialdia, zaratak, karkabak [etxe biren arteko espazioak dira karkabak]... Gero, peatonalizazioa etorri zen. Orduan hasi ginen, udalaren ideiak harritu egin gintuelako. Gure eskaera, egun osoan zamaletarako sartu ahal izatea zen. Administrazioa iritziz aldatzera eroan zuen sinadura bilketa batek. Juan Jose Ziarrusta alkate ohiak proposatu zigun elkarte bat egitea, alde zaharreko bizilagunen eskaera guztiak bideratu ahal izateko.

Kritika asko egin izan duzue.

Administrazioagaz hartu-eman erraz edo naturalagoa behar da. Idatzi bat bidaltzen badut, erantzunen bat jaso beharko dut; batzar bat eskatzen badut, erantzunen bat jaso beharko dut. Ez da polita beti komunikabideetara jo behar izatea kexak helarazteko. Elkarrizketa gehiago eskatzen dugu. Ez gaitezela beti gu izan administrazioa goazenak eskaera edo kexekin; administrazioak deitu gaitzala balorazioak egiteko. Lagundu gura dugu, ideiak eman gura ditugu.

Zer dago hobetzeko?

Gure lehentasuna karkabak dira. Asko beldurtu gara suteak egon izan direnean; dozena erdi bat eduki ditugu. Arin egin zen



Jose Mari Arrillaga martitzenean, Durangoko Artekalean.

lana eta ez ziren gehiagora heldu. Baina Bermeora begiratu gero... arriskua hor dago. Ia sukalde guztiek karkabara jotzen dute. Karkabak oso txarto daude bertara sartu ahal izateko. Ebaquazio plan bat behar da, eta suhiltzaileek ur-hartuneak eduki ditzatela. Bestalde, lonjetan ura sartzen da, kakak daude...

Alde zaharra gune bizia da...

Merkataritza bajatzen dabil,

hainbat itxi beharrean daude. Aktibatu egin beharko genuke. Esaten dute, komertzio bako herria bizitza bako herria dela.

Ostalarien ordutegia ordubete luzatzean, kontra egin zenuten.

Gure poltsikoak ere badaude krisian. Nik hogeitauko badauzkat, gura beste ordu ipini ditzakete, baina hogeitauko dauzkat gastatzeko. Jendeari zera esan nahi genion: zuk baduzu eskubi-

dea aisialdirako, baina guk ere bai atsedenerako. Bietako zein gailendu behar da? Badirudi batzuek ez dutela galdera hori ulertzen. Patxi Lopez lehendakari zenean elkarte batzuekin egindako batzar batean egon ginen. Gure eskaera zen dena ezin dela ordutegia luzatzera bideratu. Gure harridurarako, handik lau-bost hilera ordutegia luzatu zuten. Guk, bizilagunen bizi-kalitatea dugu helburu.

Eskualderako anbulantzia medikalizatu eskatu du udalak

> M. O.

PSE-EEK aurkeztutako mozioa onartu zuen martitzenean udalbatzarrak: Eusko Jaurlaritzari eskatzea Durangaldean anbulantzia medikalizatu bat ipini dezala eta Landakoko arreta jarraituko gunean bigarren erizain bat ezarri dezala. Sozialistek adierazi zuten, neurri horiek Landakoko beharginen iritzia kontuan hartuta exijitu dituztela. Bilduk, PPK eta Aralarrek babestu zuten; EAJ abstenitu egin zen. Goiztidi Diaz jeltzaleak esan zuen jakitun direla gabeziez, eta gehiago zehaztu barik hurrengo gaineratu zuen: “Hartu dugu konpromisoa zubia eraikitzeke eta konponbidea lortzeko”.

Gaur egun, anbulantzia medikalizatu Gernikatik etortzen da, gaixoa hartu eta eroan orduko denbora asko pasatuz. Anbulantzia berria Iurretako suhiltzaileen parkean ipintzea eskatu dute. Bilduren bi puntu ere gehitu zituzten: beharginen kezka bat egitea, eta horiek Jaurlaritzari helarazteko konpromisoa hartzea. Aralarreko Dani Maeztuk esan zuen Landakokoa zerbitzu publikoa dela: “Lan baldintzak kaskartzen badira, zerbitzu publikoa ere bai”.

Beharginen sinadura bilketa hasi zuten apirilean hainbat eskaera aldarrikatzeko. Legebiltzarrean ere landu da gaia, baina arazoa ez da konpondu.

II. Pastel Maratoia egingo du Bateginezek bihar, Ezkurdin

Bateginezek hogeitauko urte bete ditu, eta bertako kideek beharrean jarraitzeko asmoa agertu dute



Bateginez GKEko kideak, astelehenean, prentsaurrekoan.

> M. O.

Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak hogeitauko urte bete dituzte beharrean, eta bertako kideek aurrera jarraitzeko asmoa daukate. Adibidez, ekimen solidarioa egingo dute bihar, Ezkurdin: II. Pastel Maratoia. Iazko edizioaren arrakasta ikusita, aurten ere egitea pentsatu dute. Izan ere, 84 pastel eman zituzten herritarrek dohaintzan. Biharko ere deia egin dute; 17:00etatik aurrera pastel zatiak euro batean saldu eta dirua Pochutan (Guatemala) dauzkaten proiektuetan erabiliko dute.

Astelehenean prentsaurrekoa eman zuten Bateginezeko hainbat kidek biharko ekimena aurkezteko. Adierazi zuten ilusio handiz oroitzen dituztela hasierako sasoiak, eta oraindik ere gogotsu daudela lanerako. Baina, bolondres gehiagoren laguntza behar dute: “Ideia berriak proposatuko dituen jendea behar dugu”.

Pochutan egoera sozial eta politikoa gaitza bizi dutela ohar-tarazi dute Bateginezekoek. Proiektu berri bat garatu gura dute han, emakumeek pairatzen duten indarkeriari aurre egiten lagunduko duena.

> ABADIÑO

Biomasa galdararen kudeaketa kritikatu dute

Alkatetza dekretu baten harira atera zuen Bilduk biomasa galdararen gaia, martitzeneko plenoan

> ITSASO ESTEBAN

Biomasa galdararako erregai moduan erabiltzeko egurrezko pellet-ak erosteko, udalak bi hilabetean 15.000 euro ordaindu dituela salatu zuen Bilduk martitzeneko udalbatzarrean. Udalbatzaren oniritzia jasotzeko gobernu taldeak ekarri zuen alkatetza dekretu baten harira mahaigaineratu zuen Saioa Zuazubizkar zinegotziak gaia. Hain zuzen, pellet (zerrauts prentsatu) hori erosteagatik 15.000 euroko fakturari zego-kion dekretu hori.

“Biomasako galdarak urtebete martxan daraman arren, aurreikuspenik barik” jokatzea egotzi zion Bilduk gobernu

taldeari. Sistema ezarri aurretik galdarak zelan elikatu pentsatu barik, martxan ipini eta “esperimentuak egiten” aritzea leporatu zion gobernuari.

Jasangarritasunaren alde biomasa galdara ipintzeko apustua egin, eta sistema elikatzeke erregai erosten ibiltzea helburu horren kontrakoa dela adierazi zuen Zuazubizkarrek. Legegintzaldi honetan Mendi eta Basoen Batzorderik ez dutela deitu ere esan zuen Bilduk, eta gaia gune horretan eztabaidatu beharrekoa dela.

“Inprobisatzen ez, baliabideak zelan kudeatu pentsatzen galbitza”, erantzun zuen Jose Luis Navarro alkateak.

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua Industriagunea, 66
Tel./Faxa: 94 682 78 90
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak • Isolamenduak
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara •
2. mailako baldosak trastelekuetarako,
Den-dena MACOBERren, Berrizen!

> ZALDIBAR

Herritarren esker ona jasoko du Balendin Lasuenek omenaldian

Bihar, 17:00etan egingo dute Balendin Lasuenen omenaldia, frontoian



Arantza Baigorri alkatea, Blanca Onaindia, Rafa Urizar zinegotzia eta Fernando Garitonandia, aurkezpenean.

> ITSASO ESTEBAN

Bihar, 89 urte bete dituen egun berean, jasoko du Balendin Lasuenek herrikideen omenaldia. Besteak beste, idazle, ikertzaile, politikari, edo musikari lez, kulturari lotuta eta “nekerik barik musutruk herriaren alde egingo dako lana” eskertuko diote.

Herrikideak, eta jorratutako arlo horietan guztietan Lasuenen aldamenen egondakoak batuko dira omenaldian.

Arantza Baigorri alkateak, Labayru Ikastegiko Ander Manteolak, Eusko Ikaskuntzako Jose Mari Velez de Mendizalek edota Gerediaga Elkarteko Nerea Mujikak hartuko dute ohorezko aurrekuaren ostean berba. Balendin Lasuen omenduak ere eskainiko du berbaldia. 1945ean sortu zen eta ia lau hamarkadaz Balendin Lasuen zuzendari izan zuten korralaren emanaldiagaz amaituko da ekitaldia.

Oso gazterik, 1932an, ekin zion Balendin Lasuenek Zaldibarko kultur dinamizazioari. Frankismo osteko lehenengo alkatea izan zen, eta herrigintzan zein kultur gintzan jardun du bizitza osoan. Besteak beste, *Herriko kondairak* izenburuko 30 liburuxkatan idatzita utzi ditu Lasuenek Zaldibarko historiari hainbat pasadizo. Azken urteetan ere herri historia ikertzen jarraitzen du, nekaezin.

> ELORRIO

Bilduk esan du eskolara bideko arriskua ez dela desagertu

> M. ONAINDIA

Eskola Bidea egitasmoagaz, ikastetxeetarako bideak seguruago egin eta umeen autonomia sustatu gura du udalak. Bilduk ohar bidez ohartarazi du, gobernu taldeak ezarritako neurriak ez direla nahikoa, eta arriskua ez dela desagertu. Koalizioaren arabera, autoei eskolarako sarbidea debekatu zaie ordu batzuetan: “Horregaz, aparkalekuan zeuden arriskuak kendu dituzte, baina askoz handiagoak sortu dituzte lehendik ere arriskuak ziren leku batzuetan, adibidez, Goieta kalean”. Antza denez, ibilgailuak ilara bitan egoten dira, eta autoak zein pertsonak leku beretik doaz. Bilduren ustez, egindakoagaz ez da ezer aurreratu.

Bilduk esan du aurrekontuetarako proposamena egin zuela hainbat gurasoren ideiaz: eskola eremuak babestea eta Goietan oinezkoentzako leku berezia egitea. Ideia horiek eta Eskola Bidea ekimeneko batzarretakoak ere ez onartzea kritikatu dute.

> MALLABIA

Baserritarren eskaintza gida batean bilduta

> JONE GUENETXEA

Mallabiko sei baserritan ekoizten diren produktuei buruzko informazioa gida batean kaleratu du udalak asteon. *Baserritik kalera*, *Mallabiko baserritarrek* ekimenaren helburua herriko baserrietan ekoizten diren produktuei zabalkunde ematea da. Herriko bederatzi baserritarren produktuei buruzko informazioaz gainera, baserrien kokapena eta telefono zenbakiak eman dituzte gida honetan.

14 urteko kartzela zigorra, Olañeta hiltzea leporatuta

> AITZIBER BASAURI

Bizkaiko Epaitegiak 14 urteko kartzela zigorra ezarri dio 68 urteko Jaime Olañeta hil zuten 48 urteko emakumeari. Martxoaren 9an azaldu zen gizonaren gorpua, Osma auzoan. Ertzaintzak eman zituen datuen arabera, gorpuak labanagaz egindako zauri ugari zituen.

Lanerako



Gertu!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

Izen-ematea

maiatzaren 27tik ekainaren 6ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

Eskaintza akademikoa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
 943 71 80 09





INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

*Lanerako
Langile
Trebatuak*

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.*
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industriala.

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika eta Sareak Sistemak.

ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

SARBIDE-PROBAK EGITEKO PRESTAKUNTZA

- Goi Maila: zati orokorra.*

ZIKLO GUZTIAK EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

DATAK

Aurrematrikula: maiatzaren **27** tik ekainaren **7** ra

Matrikula: uztailaren **8** tik **12** ra

Tel.: 94 673 02 51

e-mail: info@fpzornotza.com

www.fpzornotza.com

> ATXONDO

Konponketak eginda, igerilekuak ekainaren 15ean irekitzeko prest

Igerileku bietan ur-ihesak konpondu dituzte aurten ere brigadako langileek



Igerilekuak ekainaren 15ean zabalduko dituzte, denboraldia hasteagaz batera.

> IURRETA

224.000 euroko isuna jarri dio Iurretako Udalak Adif enpresari

AHTaren lanak daroazen enpresak prozedura baliogabe uzteko eskatu du

> AITZIBER BASAURI

Espainiako trenbide sarea kudeatzen duen Adif enpresari 224.000 euroko isuna jarri dio Iurretako Udalak. Hala ere, prozedura hori baliogabe uzteko eskatu du Abiadura Handiko Trenaren (AHT) lanak daroazen enpresak. Sustapen Ministerioaren menpeko den enpresak ETBren egoitza izandakoaren azpiegiturretan daroan "jardueraren

azterketari traba egiteagatik" jarri diote isuna.

Azken osoko bilkuran eskaria tramitatzea onartu zuten. Ahobatez hartu zuten erabakia, baina, "horrek ez du esan gura isuna kendu egingo dugunik", argitu du Iñaki Totorikaguena alkateak. ETBren egoitza zena erabiltzen du Adif enpresak, eta "jarduera hori aztertzeke ikerketa egiteari uko egin ziotenean ja-

rri genion isuna", argitu du udal arduradun nagusiak.

Trenbidea bikoizteko lanak

Bestalde, trenbidea bikoizteko lanak daroazen aldi baterako enpresa elkarteak (ABEE) aurkeztutako deusezte errekurtsioa ere onartu du udalbatzak tramitera: udalak 45.000 euroko isuna jarri dio, bikoizte lanen barruan bide publikoa erabiltzeagatik.

> JOSEBA DERTEANO

Igerilekuak zabaltzeko prest daude. Aurten ere konponketa batzuk egin behar izan dituzte, baina dagoeneko amaituta daude, eta igerilekuak, urez beteta, ekainaren 15a heltzeko zain dago.

Iazko denboraldia amaitu eta ur-emaria geratu zutenean, apurka ura galtzen zuela konturatu ziren. Beraz, iazko moduan, udal txeko brigadako langileek azterketa sakona egin zuten ur-ihesa nondik zetorren jakiteko. Batez ere ura ponpatzen zuten injektore bitan identifikatu zuten ihesa eta horiek konpontzen jardun zuten. Ondoren, lauzak berriztatzen aritu ziren langileak. Segidan, igerilekuak urez bete eta egun batzuetan gelditu zuten. Berrikustera bueltatu zirenean, igerilekuak beteta zegoen, ez zuen urik galdu. Beraz, ire-

kitzeko moduan dago. Hala ere, dena prest zegoela zirudienean, igerileku txikiak ere ura galtzen zuela ohartu ziren. Igerileku handiko isuriak konpontzeak baino lan gehiago eragin diela adierazi dute brigadako kideek. Baina igerileku txikia ere konponduta eta erabilgarri dago.

Bestalde, egunotan igerilekuan lan egingo duten beharginak (atezainak, sorosleak eta garbitzaileak) aukeratzeko prozesuan sartuta dago udala. Udal txean jasotako curriculumen artean aukeratu dute.

Iazko denboraldia amaitu eta ur-emaria geratu zutenean ohartu ziren ura galtzen zuela

> BERRIZ

Antzerki udalekuak antolatu ditu Pagotxak

Ekaineko azken astean antzerkiari buruzko kontuak ikasi eta antzezlanak prestatuko dute

> AMAIA UGALDE

Ekainaren 24tik 30era, antzerkiari lotutako udalekuak eskainiko ditu Pagotxa aisialdi elkarteak. Asteleheneetik domekara goizetan izango dira udalekuak, eta gorputz adierazpena, ahots teknikak, eszenografia eta jolasak egingo dituzte.

LHn eta DBHn dauden ikasleek oporrak hartu eta hurrengo astean parte hartu ahal izan-

go dute udalekuetan. Pagotxako kide batzuk Karrikan dabilta, eta azaldu dutenez, "umeak antzerkira hurbiltzea eta batez ere, euskaraz egitea" izango da helburua. Aste osoko jardunaren ostean, domeka arratsaldean ikuskizuna eskainiko dute.

Izena emateko, pagotxakulturelkarkea@gmail.com-era idatzi ekainaren 16a aurretik.

DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA 2013-2014 Ikasturtea

 LOREZAJINTZA ETA LORADENDAKO LAGUNTZAILEA	 INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO LANGILEA
 METAL-ERAIKUNTZETAKO AROTZERIAKO ETA MUNTAIAKO LANGILEA	 SUKALDEKO ETA ZERBITZUKO LANGILEA

Durangoako Mairuakaren Antzerki-Elkartea
Herriko Mairuakaren Antzerki-Elkartea
Herriko Mairuakaren Antzerki-Elkartea
Tel: 946 232 522
www.mdurango.org

> IZURTZA

Kontzertuak eta fanzine berriaren aurkezpena, gaur gauean, gaztelekuan

Hainbat talderen elkarrizketekin eta sasoi bateko grabazioekin fanzinea eta CD bat kaleratu dituzte

> JOSEBA DERTEANO

Gaur, 21:00etan, Txabolakumeak, Poliputos, Shock Waves, B.E.K. eta Ruina Total taldeek kontzertua eskainiko dute Izurtzako Gaztelekuan. Musika gaua Black and White fanzinea aurkezteko ere baliatuko dute.

Orain urte batzuk, Mañariko lokal batean entseatu eta grabaketak egiteko aukera izan zuten hainbat taldek, Txabol izeneko

proiektuaren barruan. Sasoi hartako grabaketei irtenbidea emateko bidea da fanzinea. Alde batetik, orduko taldeen elkarrizketak jaso dituzte, eta horiekin batera euren gustuko beste talde ezagun batzuen elkarrizketak ere gehitu dituzte, beste fanzine batzuetatik jasotakoak: Ramones taldearena, esaterako. Bestetik, gordeta duten materialagaz, sasoi hartan Mañarian entseatzeko zuten taldeen bina abesti jaso dituzte CD batean.

Izurtzan fanzinea eta CDa, biak eskuratu ahal izango dira. Gaurko kontzertuetarako sarrerak lau euro balio du; sarrerak, fanzineak eta CDak, berriz, zazpi euro. Oraingoan 100 kopia atera eta euren kabuz saltzen dabilta.

Kontzertuetarako sarrerak lau euro balio du; fanzineagaz eta CDagaz, berriz, zazpi euro

> MAÑARIA

Korrikako bideoen dirua liburutegian erabiliko dute

> M. O.

Korrikaren historian lehenengo biderrez, aurtengo edizioa Mañaritik pasatu zen. Martxoaren 20an zapaldu zituen Korrika 18k Mañariko kaleak. Gertaera berezia dela-eta, udalak bideo bat egin du egun horretan jasotako irudiekin. Bideo hori euro batean salduko dute, eta jasotako dirua udal liburutegian inbertituko dute, materiala erosteko.

Kopia bat eskatu gura duenak gaur du azken aukera. Horretarako, liburutegian eman beharko du izena, bertara joanez edo 94 620 15 38 telefonora deituz. Behin eskaeren kopurua jakinda, udalak kopiak egingo ditu, eta ekaineko informazio orrian azalduko du zelan batu behar den bideoa.

> DURANGALDEA ASTEON**Eguenean amaituko dute Berbalagunen ikasturtea**

Datorren egunean, ekainak 6, aurtengo Berbalagun ekimenari amaiera emango diote Durangon. AEK-ko arduradunek azaldu dutenez, 19:00etan familia argazkia aterako dute Plateruena kafe antzokian, eta ostean, pintxo-potea egingo dute trikitilariak lagun-duta.

Sanfaustoetako kartel lehiaketan, 800 euro jokoan

Durango Udaleko Jai Batzordeak aurtengo San Fausto jaietarako kartel lehiaketa iragarri du. Parte hartu gura dutenek, ekainaren 21era arteko epea dute lanak aurkezteko. Herritarren Arretarako Zerbitzuan entregatu beharko dira kartelak. Irabazleak 800 euro jasoko ditu.

Deiadar Mendien Eguna ospatuko dute Oizen, domekan

Aldundiak antolatuta, Deiadar Mendien X. Eguna ospatuko dute domekan, Oizen. Hainbat elkarteren laguntzagaz eraten da irteera, tartean Durango Alpino. 09:00etan irtengo dute Garaitik. Gorbeia, Ganekogorta, Kolitza eta Sollube ere badira deiadar mendiak. Goian, Erdi Aroan legez, bazterrera deituko dute adarragaz.

'Herritarren Boterea' izeneko mahai-ingurua, M15 mugimenduak eraruta

Datorren barikurako, ekainaren 7rako, *Herritarren Boterea* izeneko mahai-ingurua eratu du Durangaldeko M15 mugimenduak. 19:00etan hasiko da, Durango Pinondo Etxean. Hizlariak EHUko Igor Ahedo, Desazkundeko Iñaki Valentín eta Berri-Otxoak plataformako Alfredo Castro izango dira. Jardunaldi horregaz, azaldu dutenez, mugimendua herritarrengana gehiago hurbiltzea dute helburu.

> OTXANDIO**Hileta zibilagaz agur esango diote gaur Joseba Kanpori**

Lehenengo Korrikaren sortzaileetako izan zen Joseba Kanpo astelehen goizaldean hil zen

> JOSEBA DERTEANO

Joseba Kanpo, AEKko kidea, Korrikaren sustatzailea eta lehenengo Korriketako antolatzaile eta arduradunetako, astelehen goizaldean hil zen gaixotasun baten ondorioz. Deustuko IMQ erietxean zegoen ingresatuta. Gaur, 19:00etan, hileta zibila egingo dute Mainondo eskolan azken agurra emateko.

Kanpo Bilbon jaio zen, baina familia Otxandiokoa zuen eta

han egin zuen ia bere bizitza osoa. "Korrikaren alde ez ezik, euskararen alde ere lan oparoa egin zuen, erreferentia izan zen bere sasoiari; galera handia da eta gure doluminak eman gura dizkiogu familiari", adierazi du Gasteizko bulegotik Otxandioko AEKko klaseak kudeatzen dituen Oskar Bustok.

Lehenengo Korrika 1980an egin zuten Oñatitik Bilbora, eta Kanpo sustatzaile zuzenetako

bat izan zen lehen edizio hartan eta hurrengoetan. Euskararen aldeko ekimena lehenengoz antolatu zuen taldeko partaidea izan zen. Azken Korrikan ere, Korrikaren lekukoa eroan zuen Getxoko Erromo auzoan. Kanpok euskararen aldeko lasterke- ta erraldoiaren beste sustatzaile batekin, Urtsa Erraztirenkin, Lourdes Artetxe Uribe Kostako AEK-ko irakasle historikoaren omenezko kilometroan parte hartu zuen.

Azken Korrikan Lourdes Artetxe AEK-ko irakasle historikoaren omenezko kilometroan parte hartu zuen



Aurtengo Korrikan, Joseba Kanpo testigua hartuta kilometroa osatzen. AEK

Motxotegiko 1.700 zuhaitzen aprobetxamendua esleituko dute**> J.D.**

Joan zen egunean Otxandion egindako udabaltzarrean, Motxotegi basoan udal jabetzako lurretan dagoen egurraren aprobetxamendua esleitzeko pro-

zedura hasi zuten, baldintzarria onartuta. Datorren astetik aurrera eskuragarri egongo da. Motxotegiko zonalde hartan egiten den hirugarren garbiketa zela-eta, 1.700 bat zuhaitz (Lawson altzifreak) daudela adierazi zuten. Zonalde hartako zuhaitzek 50 bat urte dituzte. Guztira, hamar bat hektarea hartzen ditu eremu hark eta 1.500 estereo inguruko materiala dagoela azaldu zuten.

> GARAI**Goieritik herrigunerako bidea konponduko dute**

Urtarrilean lurjausia gertatu zen, denboralegatik

> M. ONAINDIA

Urtarrilean, Goieritik herrigunera doan errepidean lurjausia gertatu zen, denboralearen ondorioz. Ez zuten guztiz itxi

bide hori, baina konpontzeko beharra zeukan. Udalaren eskumenekoa da zati hori, eta horregatik, obra egiteko prozesuan daude. Bidea konpontze-

ko, enpresa lehiaketara atera dute obra. Ekainaren erdialderako adjudikatuta egotea espero dute udal ordezkariak.

Obrarako dirulaguntza eskatu du udalak. Izan ere, kostua ez da txikia. Aldundiak 110.000 euro ipiniko ditu, eta udalak 45.000. Kopuru hori inbertitzeko, aurrekontuetan kreditu aldaketa egin behar izan zuten joan zen asteko udalbatzarrean.

MATRIKULA-EPEA ZABALIK EKAINAREN 3TIK 25ERA 2013-2014 IKASTURTEA

EGIZU MATRIKULA ON-LINE
durangomusika.net

4 ETA... 100 URTE BITARTEKOA BAZARA ETA MUSIKA IKASI ETA GOZATZEKO GOGORIK BADUZU, ERDU MUSIKA ESKOLARA

MONTEVIDEO 7 • TEL.: 94 603 00 35
BERTZILLA@DURANGO-UDALA.NET

Matrikulatzeko lekua: Musika Eskolako Idazkaritza
Ordutegia: Asteleheneetik barikura 11:30-15:30 eta 16:00-19:00
MATRIKULA ONLINE EGITEKO AUKERA: www.durangomusika.net

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioa eta Musika Eskola
Escuela de Música y Conservatorio Bartolomé Ertzilla

▶ Berbaz

Karmen Amezua eta Jabier Azpitarte | Berriztarrak. Kantxa Zati Bat ekimeneko kideak

“Erabakitze eskubidea desberdinak batzeko gai bat da, ez banantzekoa”

Aurreko legegintzaldian Azpitarte Berrizko alkatea izan zen EAJtik, eta Amezua EAE-ANVko zinegotzia. Politika utzi eta gutxira, ‘Gazta Zati Bat’ dokumentala ikusi zuten. Erabakitze eskubidearen aldeko Kantxa Zati Bat ekimenaren bultzatzaileetako bi dira



▶ AMAIA UGALDE

“Euskal Herriak erabakitze eskubidea dauka”. Aldarrikapen horretan ideia askotako herritarrek bat egiten dutela jakinda, Kantxa Zati Bat egitasmoa sortu dute Berrizen. Idiazabalen egin zuten lehenengoz antzeko ekimena, eta haren berri ‘Gazta Zati Bat’ dokumentalean eman zutenetik, antzeko lana egiten hasi dira herri askotan. Gure Esku Dago ekimenean batu dira herri horiek.

Zelan sortu zen Kantxa Zati Bat? Karmen Amezua: *Gazta Zati Bat* dokumentala Berrizen eman zutenean, esan genuen halako zerbaitegin ahal zela Berrizen ere. Oinarria aurreko legegintzalditik dator. Nahiz eta alderdi desberdinetakoak izan eta gauza askotan irizpide desberdinak eduki, gai izan ginen batzen gintuzten kontuetan bat egiteko.

Jabier Azpitarte: Ulertzen dugu erabakitze eskubidea eskubide unibertsala dela, eta orduan, ez dugu ulertzen politikoki ideia desberdinak izanda ere, esku-

bide unibertsal baten aurrean hain ikuspegi desberdinak egon daitezkeenik. Erabakitze momentua heltzen denean, egongo dira era desberdinak herri konfigurazio bat ulertzeko, kontua da herriak erabakitze eskubidea edukitzea.

Zelako harrera eduki duzue herrian?

K. A.: Abenduan ituna kaleratu eta 140 lagun batu ginen Kantxa Zati Baten aurkezpenean. Hor zabaldu genuen gure sukaldeko lana herritarrengana. Fase hori polita izan zen. Berrizko norbanakoengana zuzendu ginen proiektua azaldu eta gonbidatze- eta egia esan, erantzuna nahiko ona izan zen.

J. A.: Leku guztietara gatazkaren kontrako jarrerarekin joan gara. Norbait deserroso sentitzen bada, haserretzen bada edo ikusten badu mamuren bat, utzi dezala. Bueltatuko gara, eta topo egingo dugu bidean beste batean. **K. A.:** Ekimen honegaz bilatzen duguna batzea da. Batzea, hiru puntutan oinarritzen den ideia batean: lehenengoa, Euskal Herria nazio bat dela. Bigarrena,

“

Hitza gatazkaren giltza bada, hitz egiteko guneak behar ditugu, eta hori da Berrizen praktikan jartzen

Euskal Herriak erabakitze eskubidea duela, eta hirugarrena, erabakitze subjektua euskal herritarrok garela. Horrekin ados dagoen edonor egon daiteke proiektu honetan. Hau batzeko gai bat da, ez banantzekoa.

Adostasunetarako garai egokia dela ikusten duzue?

J. A.: Euskal Herriaren konponbiderako garai txarrik ez dago; garai guztiak eta aukera guztiak dira onak. Hitza gatazkaren gil-

tza bada, eta horretan sinisten badugu, hitz egiteko guneak behar ditugu, eta hori da Berrizen praktikan jartzen ari garena. Lehenengo ekimenetara ez dugu politikaririk gonbidatu, apropos. Nahi duguna da herriak berak eskatu diezaiela politikariei nahi duena, hori delako politika egitea, eta ez alderantziz, politikoei markatzea herritarren erritmoa eta pausoa.

K. A.: Politikatik irten berri, jendeari egitasmoa azaltzerakoan, azpimarratu egin dugu herritar moduan gabiltzala bertan. Udalbatzari ez genion gonbidapen zuzenik egin. Orain bai, batzar bat eskatu diogu udalari, aurkezpen publikotik denbora pasatu da, eta proiektua aurkezteko. Elkarreterara joaten ere hasiko gara bigarren fase honetan.

Erabakitze eskubidearen inguruan galdetegia egin duzue. Zer ondorio atera duzue erantzunetatik?

J. A.: Konturatu gara sarritan behar dugula hitzak definitzea. Nahastu egiten dugu eskubide bat, erabakitzea, independentzia... Hemen aldarrikapena era-

bakitze eskubidea da.

K. A.: Estatuekin zelan izango dugun hartu-eman, hori erabakiko da gero. Guk nahi duguna da zalantzak dauzkatenean hitz egin eta gure azalpenak eman. Zenbat eta talde anitzagoa izan, orduan eta hobeto. Ikusten dugu Europa mailan ere badagoela mugimendua: Eskozian 2014an egingo dute erreferenduma. Katalunian ere batu ziren desberdinak helburu horrekin... Badaude mugimenduak, eta guk ere hor egon behar dugu.

Beste udalerrri batzuekin batera, Gure Esku Dago ekimena aurkeztu zenuten zapatuan. Zer helburu izango du?

K. A.: Erabakitze eskubidearen alde mugitzen gabiltzan herriak gaude bertan; Gure Esku Dago aterki bat da guretzako. Ekainaren 8an, ekitaldi baten elkartuko gara Ficoban, eta bertan kontatuko dira gauzak, aurkeztuko da abesti bat... Bakoitza bere herrian dabil gauzak egiten, baina helburu berekin. Batzuek, beharbada, ez dute edukiko herri mailan halako ekimenik, baina bat egin gura badute, ekimen global bat edukiko dute parte hartzeko. Agian beste herri batzuk ere animatuko dira.

Ekainaren 8rako autobusa antolatu duzue Berriztik.

K. A.: Ekimen honetan gauden herriak elkartuko garenez, bai gurako gure Berriz herri indartsu moduan agertzea. Lortuko bagenuke abenduan ituna sinatu zutenak autobusean igotzea eta Ficoban agertzea erabakitze eskubidearen alde dagoen berriztar moduan... Ederra izango litzateke. Gustatuko litzateke harro egotea; gure herriaren ekimen hau martxan dago, ni partaidea naiz, harro nago, eta agertu nahi dut harrotasunez. Gu hala gaude, harro-harro.

J. A.: 9:30 inguruan irtengo gara autobusean, eta 14:00 ingururako bueltatuko gara Berrizera. Autobusez joan gura ez duenak, kotxez joan eta egunpasa egin dezake. Baina abisatzea eskatuko genioke, jakiteko zenbat berriztar egingo garen.

K. A.: Uste dut ekitaldi polita izango dela, hunkigarria, eta benetan merezi duela.

> BERTSOLARITZA

“Bertsozaleak batu gura ditugu: gutxi inporta du txapela zeinek jantzi”

Eñaut Uruburuk eta Enea Pinillosek aurkeztu digute Durangaldeko lehenengo Kopla Txapelketa

> ITSASO ESTEBAN

Zer parte-hartze daukazu ba-koitzak ekimen honetan?

Eñaut Uruburu: Bost laguneko antolatzaile taldean gabiltza, bertso munduan elkar ezagutu-takoak denak.

Zer helburugaz antolatu duzue Kopla Txapelketa hau?

Enea Pinillos: Durangaldeko bertsolariak eta bertsozaleak batzea da helburu nagusia, batez ere, gure arteko harremana indartu gura genuke.

E.U.: Bizkaiko Bertsozale Elkar-tearen barruan, Durangaldeko bertso eskolen elkarte antolatzeko bidean dago, eta datorren barikurako Plateruenean antolatu dugun txapelketa hau litza-teke elkarlan horren lehenengo emaitza. Nagusiak eta gazteak batzen dituen formatuan.

Afaria, kopla txapelketa, musika... Eskaintza berezia da ekainaren 7ko Plateruenekoa. Eduki duzue ereduren bat?

E.U.: Bai, urteak dira Zarauzko gaztetxean, adibidez, Kopla Txapelketa antolatzen dutena, eta dakigunez, giro ona sortzen da.

Parte hartuko duten bertsolariak adin oso anitzekoak dira.

E.U.: Bai, hala da. Izan ere, adinari begiratu barik, Durangaldeko bertsolariak elkartzea da asmoa. Txaber Altube eta Juan Mari Areitio izan daitezke aniztasun horren adibide.

Durangaldeko hainbeste bertsolari oholtza beretik kantuan entzuteko aukera da.

E.U.: Bai, txapelketa kenduta, ez da ohikoa Durangaldeko horren-



beste bertsolari oholtza beretik kantuan entzutea.

E.P.: Txapelketetan ere ez dira hain adin eta kondizio anitzeko bertsolariak entzuten.

Zergatik koplatan?

E.U.: Bertsolarien arteko diferentziak biguntzen lagundu lezake formatu honek. Koplak informalitatea ematen dio; txapelketa nork irabazten duen gutxienekoa da: bertsozaleak batzeko aitzakia da. Baina koplatan ondo egitea ez da erraza.

“

Durangaldeko horrenbeste bertsolari entzuteko aukera berezia izango da”

E.P.: Arina delako, saio bizia sortzeko aukera ematen duelako ere aukeratu dugu.

Bertsoekin tartekatuta musika ere izango da ekainaren 7ko Platerueneko saioan, ezta?

E.U.: Bai, saio berezia izango da. Txomin Magdalenak eta Markel Onaindiak aurkeztuko dute, eta Ghetto musika taldeak ere parte hartuko du. 21:00etan afaldu, eta gero, 23:00etan hasiko da emanaldia. Afaritarako sarrerak Plateruenean eskuratu daitezke.



Durangaldeko bertsolari gazteak txapeldun, Eskolarteko finalean

Txaber Altube abadiñarrak jantzi du 14 urtetik gorako taldeko txapela

Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalean jardun ziren Durangaldeko bost bertsolari eguaztenean Bilbon jokatu zen finalean. Durangaldeko bertsolari bi ailegatu ziren nagusien finaleko buruz burukora: Ander Gerrikaetxebarria eta Txaber Altube. Puntuei erantzuten oso ondo aritu zen Altube, eta gaz-

teen taldean kantatu zuen anaia-ri dedikatu zion txapela.

Lau laguneko bi taldetan aritu ziren 14 urte arteko bertsolariak: Bizkaiko ekialdea, batetik, eta mendebaldea, bestetik. Durangaldeko Bittor Altube abadiñarrak eta Iruri Altzerreka garaitarrak kantatu zuten txapela irabazi zuen ekialdeko taldean.

Durangaldeko bertsolari bi ailegatu ziren nagusien finaleko buruz burukora: Altube eta Gerrikaetxebarria



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

AURREMATRIKULA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



MATRIKULA ZAITEZ
94 681 42 53
www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-12:00/15:30-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide proba
- Goiko zikloetarako sarbide proba
- Informatika (hasiera maila)
- Euskara / ingelesa (hasiera maila)

IRAKASKUNTZA ARAUTUA: maiatzaren 15etik ekainaren 21era
EZ-ARAUTUA: ekainaren 17tik 21era

> **ANTZERKIA**

Galtzaile maitagarriei buruzko sei istorio 'Teatropiezos' obran

Abadiñoko Banarte taldeak kudeatutako antzerki tailerraren azken fruitua da

> **ITSASO ESTEBAN**

Ekainaren 6an estreinatuko dute Banarte taldeak kudeatutako antzerki tailerlean ikasturte honetan prestatu duten antzez-

lana. *Teatropiezos* du izena, eta Durangoko Plateruenean eskainiko dute lehenengoz, datorren egunean. Bederatzi aktorek jardungo dute obra antzeztan: tai-

lerrean parte hartu duten lagun guztiek, eta Sardo Irisarri aktorea ibiliko da taldea zuzentzen. Banarteko antzerki tailerlean irailetik ari dira obra hori pres-



'¿...y lloverá?' antzezlanaren aurkeztu zuten iaz, Banarteren antzerki tailerrekoak.

> **MUSIKA**

Bartolome Ertzillan musika-tresnak birziklatzeko tailerra

Ekainaren 1ean, 17:00etatik aurrera egingo dute Reciclonk izeneko tailerra Turukutupa taldeagaz

Durangoko Bartolome Ertzillan musika eskolak Udaleko Agenda 21en laguntzagaz antolaturikoa da musika-tresnak birziklatzeko tailerra. Bost eta hamabi urte bitarteko ikasleei zuzendurikoa da Reciclonk izeneko ekimena, eta ekainaren 1ean egingo dute, Durangoko musika eskolan. Turukutupa taldeak jardungo du

Birziklapenera hurreratzea eta berrerabilitako materialekin musika tresnak egitea da helburua

dinamizazio lanetan. Tailerraren bitartez, umeen sorkuntza plastikoa eta musikala sustatu gura dituzte.

Berrerabilitako materialekin musika tresnak egitea eta umeak birziklapenera hurreratzea da helburua. Tailerraren lehenengo partean, akustikaren eta musika tresnen berri eman go diete parte-hartzaileei, eta saio esperimentalak egingo dute hurrengo ordubetean, ume bakoitzak tresna bat sortu dezan.

Hondakinekin egindako tresnekin, kontzertu bat eskainiko dute Turukutupa taldeko musikariek, Durangoko musika eskolan. Ekainaren 1ean izango da saioa, 17:00etan.

> **LITERATURA**

Sahara Libre literatur lehiaketako bigarren saria Iban Gorritiri

Saharar baten eta kazetari baten arteko telefono elkarrizketa da Gorritiren narrazioaren haria

Gora bihotzak! Isiltasun harresiarentzako musuak idazlanaren aurkeztu zuen Iban Gorriti kazetari durangarrak Sahara Librearen aldeko Bigarren Literatur Lehiaketan, eta bigarren saria eman dio epaimahaiak.

Saharar baten eta kazetari baten arteko telefono elkarrizketa da narrazioaren haria. Gaueko ordu txikietan idatziriko istorioa da, Iban Gorriti egileak azaldu duenez. Idazteko dokumentatu egin behar izan duela dio Gorritik; izan ere, Amazigh herriarekin hartu-eman sakona izan duen arren, sahararrarekin ez du harreman zuzenik eduki. Guztira, 27 lan jaso zituzten lehia-

tatzen. Jose Luis Alonso de Santos antzerkigilearen *Historias de amor y humor al fresco* liburuko sei piezak osaturikoa da obra, eta "galtzaile maitagarrien istorioak" kontatzen ditu.

Plateruenean estreinatuko eta gero, Durangaldeko beste bi antzokitara ere eskainiko dute *Teatropiezos*: ekainaren 8an, Traña-Matienako Errota kultur etxean, eta 22an, Berrizen.

'Historias de amor y humor al fresco' liburuko piezak osaturikoa da egunean estreinatuko duten obra

Bestelako proiektuetan ere badihardu Banartek. Batetik, antzerkiari buruzko ikastaroak eskainiko ditu datorren ikasturtean, eta bestetik, *Guernica 1913* obra estreinatuko du ekainean: Urdaibaiko industrializazioaren hasierako bi munduren arteko talka kontatzen du lan horrek.

GEURE DURANGALDEA

JOSE JULIAN BAKEDANO
Zinegilea



Madonna eta euskaldunak

Zeresan handia eman du Madonnak azken ikuskizunearan euskal elementuak erabili izanak. Nor hobe horiek azaltzeko, ikuskizunaren lekuko zuzena izan den norbait baino? Nire iloba Pedro Olabarri Bakedanok hurrengo lerrook idatzi ditu horren harira:

"Bere bidetari ekin zionean, inortxok ez zuen imajinatuko 30 urte geroago ere, Madonnak hoberen egiten dakien hori egiten jarraituko zuenik, alegia, berak sortutako irudi bat, produktu bat eta marka bat ustiatzen jarraituko zuenik. Bere lana zorrotz egin du estatubatuarrek, moldatzen jakin du (bere arloko espezialista onenen laguntzarekin, jakina), eta horren adibide da *MDNA* bira 2012ko birarik errentagarriena izatea: 296 milioi dolarreko irabaziak eta 1,6 milioi ikusle izan ditu.

Kontuan hartzen badugu Madonna dela, horretan ez dago aparteko ezer. Baina, badu aipatzeko zerbait: Madonnak euskaraz abestu du kontzertuetako une batzuetan.

Antza, duela uda bi, Iparraldeko Kalakan hirukoteak Madonnaren urtebetetze festan jo zuen, eta Madonna bera liluratuta geratu zen haien musikarekin. Bere ordezkariak hirukotearekin harremanetan ipini ziren, biran parte hartzera gongidatzeko, eta gainerakoa, gauza jakina da.

Ni bira horren lekuko izan nintzen. Londresko Hyde Parcken, 50.000 lagunengandik aurrera, Madonnak txapela jantzi eta *Aldapeko sagarraren adarraren puntan...* abestu zuen. Jakina, nik ozen abestu nuen, *anbizio ile-horia* bera mukurraz zuen kultura horren parte izateaz harrotuta".

* Erredakzioan itzulita



hitz
liburudenda

artekalea 14
durango
94 681 07 76
info@hitzliburudenda.com

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MAIATZAK 31 22:00etan
BLUES THORPES
+ AZ/DZ. Kontzertua. 10-12 €

EKAINAK 1 22:00etan
ZAIN + COHEN + THORPES
ESKEAN KRISTO. Sarrera: 8-10 €

EKAINKA 6 21:30ean
TEATROPIEZOS
Banarte Antzerki Taldea. Sarrera: 1 €

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

LINGUA NABAJORUM
Tartean Teatro - Ez dok hiru bikoteatroa

Ekainak 13 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

INGURUMEN GEHIGARRIA



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



cemosa
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.



www.soul-cemosa.es

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99



K. Aginako

Urtean 40 tona hondakin organiko bildu, eta ongarri legez berrerabiltzen dituzte Berrizen

2012 hasieran ipini zuten abian hondakin organikoak etxez etxe jaso eta ongarri legez berrabiltzeko 'Berriziklatu' proiektu pilotua

Duela lau hilabetetik hona, Berrizko 54 etxe gehiagotan hasi dira eurek sorturiko hondakin organikoak bereizten. Etxe horietan zein duela urtebete *Berriziklatu* proiektu pilotua martxan ipini zutenetik parte hartzen duten etxeetan, astean hirutan batzen dituzte hondakin organikoak atez ate. Guztira, 114 dira dagoeneko *Berriziklatu* proiektuagaz bat egin duten familiak. Etxeetan ez eze, lau denda eta bi jatetxetako hondakin organikoak ere batzen dituzte.

Etxe, denda eta jatetxeetan jasotako hondakin organikoak ongarri bihurtzen dira, Berrizburuko konpostegian burutzen den prozesu naturalagaz.

Berrizko 114 etxetan, lau dendatan eta jatetxe bitan bereizten dituzte hondakin organikoak

Urtean 40 tona hondakin organiko jaso dituzte; 500 kilo hondakin organiko egunean. Oso kalitate handikoa da Berrizko plantan sorturiko konpost hori. Izan ere, teknikariek nabarmendu dutenez, orokorrean, hondakinen bereizketa oso ondo egiten dute egitasmoaren barruan dauden herritarrek: noiz edo noiz agertzen dira konpostatu ezin diren hondarrak ontziren batean, baina salbuespenak dira.

Bestalde, joan zen urte amaieratik edukiontzi marroiak ere

eskura dituzte berriztarrek, herriko lau gunetan. Edukiontziko giltza eta poltsa biodegradarriak erabilia, hondakin organikoak bereizteko aukera hori ere badute gurago dutenek.

Orlan Isoird alkatearen berbetan, ekimenak orain arte eman dituen fruituak oso positiboak izanda, proiektuaren etorkizuneko hausnarketa abiatzekotan da udala. Gainera, 54 etxe gehiagok ekimenagaz bat eginda, "konposta egiteko Berrizburun daukagun azpiegitura bete egin

da, eta ez daukagu egitasmoa jende gehiagoregana zabaltzerik". Etorkizunean, Berriziklatu zelan gauzatu hausnartuko dute udaleko alderdiek.

'Berriziklatu' ekimenagaz, urtean 40 tona hondakin organiko jaso dituzte; 500 kilo hondakin egunean

Hasieratik parte hartu du Silviak proiektuan. Kontatu digunez, Italia jaioterrian ere birziklatzen zuen, eta "bikaina" irizten dio konpostatzeko ideiarri. Ontzi marroia dauka etxean, eta astean hirutan batzen du udalak bere etxeko atarian. "Proiektua martxan ipini eta hilabete batzuetara, udalak gure ekarpenari esker sorturiko ongarri poltsa bana ekarri zigun etxera, eta oso pozgarria da ekimenaren fruituak ikustea". "Erraza" egiten zaiola dio, sistema eroso, "oso ondo antolatua" dela.



Silvia Biella
- Etxeko erabiltzailea

Berriziklatu ekimena martxan ipiniko zutela astekari honetan irakurrita sartu zen Dia supermerkatua hasieratik egitasmoan. "Oso gauza erraza da guretzat: udalak utzitako kutxetan ateratzen ditugu hondakinak, eta udala pasatzen da jasotzera", dio Juan Ramon Turrión supermerkatuko arduradunak. Ekimen honen parte izatearen onura handiena "guk sorturiko hondakinak beste nonbaiten ongarri erabiliko direla jakitea" dela dio, eta oso balantze positiboa egiten du.



Juan Ramon Turrión
- Dia supermerkatua

Bigarren fasean, beste erabiltzaile berri batzuekin batera hasi ziren Ganeko Etxe jatetxean ere hondakin organikoak bereizten. Iñaki Agirregomezkortak kontatu duenez, "lehen ere ez genuen asko alferrik galtzen: animaliei jaten emateko eroaten zituzten hondakin organikoak". *Berriziklatu* eskainiriko sistema "erraza, eroso", dela dio Agirregomezkortak. "Oso ideia ona da; ez dakit beste bideren bat egon daitekeen birziklatzeko, baina egia dena da, sistema honek ondo funtzionatzen duela".



Iñaki Agirregomezkorta
- Ganeko Etxe jatetxea

Elorrion bizikletaren erabilera sustatuguran dabilta

Ibilbide laburrak bizikletaz egin ahal direla uste dute; kutsadura gutxitzea ere lortu gura dute

> MARKEL ONAINDIA

Bizikletaren erabilera bultzatzea, autoen alternatiba legez. Hori da Elorrion garatzen dabilzan prozesuaren helburu nagusia. Herriko joan-etorri laburrak bizikletaz egin ahal direla uste dute, eta bide batez, herriko kutsadura gutxitzea ere lortu gura dute. Bizi-ohituretan eta ingurumenean eragitea nahi dute, beraz.

Estrategia zehazten

Sustatzaileen arabera, trafikoa gutxituz eta modu jasangarriagoan mugituz, herria eraldatu egin ahal da. Bide horretan ari dira beharrez. Udalak ildo horren estrategia zehaztu gura du, eta lehenengo, herritarrekin azterketa egiten dabil. Joan zen astean egin zuten bigarren batzarra.

Azterketaren ostean, ekintzak pentsatzea eta plan bat idaztea izango dira hurrengo urratsak. Prozesuaren oinarritzko dokumentuan azaltzen dutenez, espazio publikoa bizikletan ibiltzeko moldatzea izango da zereginetako bat.

Trafikoa gutxituz eta modu jasangarriagoan mugituz, herria eraldatu ahal da

Herriko trafikoa

Azterketa prozesu hau garatzeko, hainbat aurrekari hartu dituzte kontuan: Durangaldeko mugikortasun plana, Eskola Bidea proiektua, Hiri Antolamen-



durako Plan Nagusia, Elorrioko Mugikortasun Plana... Azken horren arabera, Elorrion 3.200 joan-etorri dira herri barnekoak; bidaia guztien %15. Inkestan parte hartu zutenen %67k esan zuen ibilbide hori oinez edo bizikletaz egin zezaketela, autoagaz beharrez.

Kopuru txikiak

Azkeneko urteetan bizikletaren erabilera gorantz joan da, datuen arabera. Baina, oraindik ere kopuru oso txikietan ager-

Inkestan parte hartu zutenen %67k esan zuen ibilbide hori oinez edo bizikletaz egin zezakeela, autoagaz beharrez

tzen da bizikleta. Esaterako, Eskola Bidea egitasmoa garatzean, ikusi zuten ikasleen %3 bakarrik joaten dela txirringaz ikastetxera. Ikasleen erdia oinez joaten da, eta hori da eskolara joateko modu erabiliena. Baina, gainerako guztiek autoagaz egiten dituzte ikastetxerako joan-etorriak. Horrez gainera, autoaren erabilera hazi egin da urterik urtera.

Planagaz, joera horiek guztiak aldatzea izango dute helburu.

bizitza

Urik gabe ez dago bizirik. Gure erronka berritzen jarraitzea da, ekosistemen garapen iraunkorra ahalbidetzeko eta bertan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.com

ANDER AREITIOAURTENA | 29 urte | IK4 Azterlaneko teknikaria

“Konposta prozesu natural bat da; lan gutxi eskatzen du”

Autokonpostaren abantaileri buruzko azalpenak eman ditu IK4 Azterlaneko teknikariak

> JOSEBA DERTEANO

Mañariko eta Izurtzako udalek sustatuta, autokonpostaren inguruko egitasmo bat gainbegiratzen ibili da Ander Areitioaurtena herri bietan. Konpostagaz hasi aurretik zaborra egunero ateratzen zutenek, orain, nahikoa dute astean bi-hiru bider aterata. Horixe da atera duten ondorioetako bat.

дутена. Baina aurretik egiten ez zutenek onerako alde handia igarri dutela ere ikusi dugu. Atera dugun ondorioetako bat da aurretik zaborra egunero ateratzen zutenek orain astean bi-hiru bider aterata nahikoa dutela. Azkenean, hondakinen %40 inguru zabor organikoa da. Gainera, hatsa eragiten duen zati hori kentzen zabilta konposterako erabilita. Beraz, igarri egiten da.

Zelako esperientzia izan da?

Durungalde mailan autokonpostaren inguruan abiatu den lehenengo esperientzia izan da. Batez ere, baserrietan eta txaletetan bizi den jendeari zuzenduta egon da, zaborrontziak etxe ondoan ez dituzten horiei. Egia da parte hartu dutenetako askok bazutela aurretik ere konpostaren inguruko kontzientzia zioa. Batzuentzat, hirugarren konpostagailua izan da guregaz eduki

Zuk hartu-eman zuzena izan duzu konposta egin dutenekin. Erreparo asko topatu dituzu?

Ez, prozesu natural bat eta lan oso gutxi eskatzen du. Probatu dutenek ikusi duten oztopo bakarrenetakoa eulien ingurukoa da. Konpostagailua ireki eta euli asko irteten da. Hatsagatik ez da inor kexatu eta arratoiengatik ere ez. Dena dela, arratoiak hurreratzen badira, irtenbide erraza du; behealdetik bakarrik



sartu daitezke eta egoera hori aurreikuszeko nahikoa da behealdean sare metalikoa ipintzea. Beharbada, autokonposta egiten jardun dutenekin gehien tematu garen alderdia hezetasuna zaintzea izan da. Etxeko hondakinak hezeak dira, ur asko dute eta material lehorrak nahastu beharra dago. Batzuek esaten zuten: “Belarra ebaki eta hareagaz nahasten dut”. Baina belarrak

ur asko du, sikatzen utzi behar da. Beste batek zioen: “Basoan hostoak batuko ditut”. Baina aurrean egindako euri denagaz ezinezkoa zen. Konpostagailu askok hezetasun handia zuten. Sasoi batean, zerrakina doan lortu zitekeen, baina orain merkatua du eta saldu egiten dute. Lastoa lortzea ere ez da hain erraza. Baina, orokorrean, jendea gustura azaldu da.

behar dela. Hori guztia, jakina, komunikazio plan egoki baten bidez bideratu behar da, jendea kontzientziatu dadin, ohiturak hartu ditzan...

Has gaitzen komunikatzen. Zer esango zenioke dudatan dagoen bati?

Konpostaren tratamendua erraza da, eta ez du beharleku handirik. Nahasketak astero egin beharrik ere ez dago. Pilo batean batuta utzi eta hilabete batzuen buruan, konposta bera bakarrik eginga dago. Gainera, lortzen duzun emaitza produktu erabilgarri bat da. Baserri guneetarako abantaila bat: behiaren satsak haziak ditu, hortik belarrak irtengo du eta ortuan ez dugu belarririk gura. Konpostak satsaren ongarri denak edo gehiago ditu, eta gainera ez du hazirik.

Baserrian konposta egitea garestia da? Azpiegitura asko eskatzen du?

Konpostagailuak salgai daude, baina sare bat lau zutoinen bueltan batuta ere egin daiteke. Erraza da, norberak egin dezake baserrian arazo handirik barik.

Argibideak eman bai, baina zeuk konpostik egiten duzu?

Izurtzan eta Mañarian konpostagailuak banatu genituenean, neurtzeko bat erosi nuen, eta baserrian martxan ipini nuen. Pisuan ez dut aukerarik.

“

Beharbada autokonposta egiten jardun dutenekin gehien tematu garen alderdia hezetasuna zaintzea izan da”

“

Europa mailako zuzentarau batek dio 2020rako herri hondakinen %50 birziklatzea lortu behar dela”

2013 EKAINAREN 6tik 9ra



anboto
komunikabideak



**IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



www.emakumeenbira.com

9URRETA XXVI. EMAKUMEEN BIRA



Iritzia

> GUTUNAK  gutuna@anboto.org
eguziateneko 17:00ak arteko epea

Euskaraz Bizi egun txikia

Euskaraz pentsatu, amestu, eta itzartu arren, sarriegitan ez da erraza pentsatu eta amestutako hori gero euskaraz bizitzea. Eta ez da erraza izango euskaraz bizitzea, sasi-ofizialtasun eta menpeko hizkuntza politikak alde batera utzi eta euskarari lehentasuna emango dioten legedi eta politika burujabeak ezartzen ez badira. Baina, guk hartu dugu erabakia, eta inoren eta ezeren zain egon barik, euskaraz biziko den herrirantz bidea ibiltzen hasi gara. Auzolanetik, bakoitzak bere horretan eta guztiok batera, bidea egin eta aldaketak eragin ditzakegula uste dugu, euskara ezagutu beharrekoa eta lehentasunezkoa izan dadin Durangon eta Euskal Herri osoan.

Libertate eskasia dagoen lurretan aske guneak eratzearaz beharrezkoa den bezalatsu, euskaraz bizitzeko zailtasunak dauden urteetan euskaraz bizitzearen aldeko hautua indartzeko egunak eratzearaz garrantzitsua dela deritzogu. Eta hau guztia dela-eta, datorren ekainaren 8rako, herrikideekin elkarlanean, Euskaraz Bizi egun txikia antolatu dugu Durangon. Bertan, egitarau xume baina polit batekin, jaia eta aldarrikapena uztartuz, euskaraz bizi nahi dugula erakutsi gura dugu. Bai eta euskararen alde egoteaz harago, horren alde egiteko prest gauden herria garelako ere. Horretarako, baina, zure eta gainerako herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Anboto eta Oizeraino zabalduko dugu deia: zure gara espaloitik jaitsiko, euskaraz bizi!

Durango Euskal Herrian Euskaraz

> KLIK BATEAN



Ur-zorrotada Balbino Garitaonandia plazan

Ura goitik behera beharrez, behetik gora zerion eguziatenean Balbino Garitaonandia plazan, hodi baten matxuraren ondorioz. Gorka Madrazo Berbaroko lankideak informatzaile lana eginez, argazkia bialdu du *Anboto*ra.

Durango

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ




Zalaparta, zalaparta... kaosaren txalaparta

Trena orain dala 130 urte baino gehiago heldu zan gure urira. Orduko durangar guztiak ez eben begi onez ikusi: antza danez, animaliek ez eben horrenbesteko ekoizpenik emongo (behien esne jariora be txikiagoa izango zan) eta galera ekonomiko larriak egongo ziren, seguru. Alabaina, urteak joan, urteak etorri, Bilbo-Durango-Donostia loturak onura ederrak ekarri deuskuz durangarroi. Badakigu, jakin be, gure udalerriak abantaila, balio eta altxor ederrak dituela, baina trenbideari jarraituz, besteak beste, mundu zabalari gure izena eta izana erakusteko gaitasuna izan dogu.

Azken urteetan, baina, trenbidea arazo bihurtu jaku: gure Durango bitan zatituta egoan, trintxera zeharkaezin baten ondorioz; alde batetik bestera igarotzeko, pasabide zehatz batzuk baino ezin genduzan erabili; eta, trenen maiztasuna ugaria izanik, oinezkoen zein motordun ibilgailuen trafikoa lau aldiz eteten zan orduro gure uriko sei pasabideetan.

Eusko Jaurlaritzaren eta udalaren arteko lankidetzari esker, posible izan zan trena lurperatzea, eta berau egitate bihurtu zan (zorionez!), aurreko gobernuaren hainbat atzerapenen ostean, aurtengo urtarrean. Eusko Trenbide Sareagaz izandako harremani jarraituta, berriz be, posible izan jaku antzina-ko trenbide zaharrea hiru pasabide barri zabaltzea: Urizarri kaletik Landako Gunera, Astarloa kaletik Ibaizabal auzora eta San Faustotik Faustebekoara, gobernuak pasabideak ahalbidetuz eta udalak lurzoru oinezkoentzat atonduz. Eta hori guztia herritarren onurari begira egin, ez betikoen oihartzuna hedabide zehatz batzuetan goratzeko ekintza zentzugabe, politizatu, burubako zein hutsala erabilia. Zalaparta beti ahoan eta lanari gustorik ez daukenek halakoak egiten dabez. Guk geureari ekingo deusogu, arduraz, erantzukizunez eta, batez be, herriaren ongizateari begiratuta.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko maiatzaren 31a
11. urtea - 503. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzaileak: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Kirola

> MOTORRA

Nazioarteko V. Quad Opena bihar eta etzi, Abadiñon

Lasterketak, azoka, ibilbideak... Askotariko ekitaldiak prestatu dituzte



Guztira, 100 bat parte-hartzaile ibiliko dira Traña-Matienan atondutako zirkuituan.

> JOSEBA DERTEANO

Quad mundua erdigune duen asteburua proposatuko du bihar eta etzi Abadiñoko Ende-Quad Motor Klubak. Aurten bosgarren aldia egingo duen ekimenak, 100 bat parte-hartzaile ez ezik, motor arloko enpresa garrantzitsuak ere ekarriko ditu Traña-Matienara (Yamaha, Suzuki...) euren nobedadeak erakusteko: quad-ak, buggiak...

Traña-Matienan, Inyecta-metal enpresaren atzealdean

Domeka goizean 100 bat quad zale Durangaldeko mendietatik ibiliko dira lau bat ordutako ibilbidean

dagoen zelaian atonduko dute kilometro bat inguru duen zirkuitua. Zapatuan egun osoan, eta domekan eguerdira arte, hainbat txapelketatan (quad country openean, esaterako) parte hartuko duten 100 bat quad gidari batuko dira Abadiñoko auzoan. Espainiar estatu osotik eta Portugaldik etorriko dira.

Domeka goizean, 100 bat quad zale Durangaldeko mendietatik ibiliko dira lau bat orduko ibilbidean, motor hotsa eskualde osora zabaldua. Bien bitartean, Traña-Matienako zirkuituan moto-kros lasterketak egingo dituzte.

Musika eta azoka

Urtero legez, quad openaren harira, Erdi Aroko azoka ere prestatu dute asteburu osorako Trañaetxoste kalean. Artisautza-

ri eta janariari lotutako askotariko produktuak salduko dituzte azokan.

Horrez gainera, domekan, 12:00etan, De Norte a Sur dantza taldeak erakustaldia eskainiko du zirkuituaren inguruan atondutako karpa batean.

EGITARAUA**ZAPATUAN:**

- 10:00 / 14:00: Saikapen faseak
- 14:00: Bazkari herrikoia
- 16:00 / 20:00: Finalak
- 20:30: Sari banaketa
- 23:00 / 03:00: Musika eta bideoa eguneko irudiekin

DOMEKAN:

- 09:00 / 14:00: Quad ibilaldia
- 11:00 / 15:00: Moto-krosa
- 12:00: De Norte a Sur taldea

> FUTBOLA

Izen-ematea zabalik hilaren 8ko eta 9ko kongresurako

Mendilibar, Sarriugarte, Amorrortu eta Etxarri etorriko dira, besteak beste, Durangora

Gertasport kirol klubak futbolaren inguruko lehen kongresua antolatu du Durangoko Gran Hotelen, ekainaren 8rako eta 9rako. Izen handiko hizlariak ekarriko dituzte, futbola hamaika ikuspuntutatik jorrazteko.

Guztira, 10 hizlari etorriko dira. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, Jose Mari Amorrortu, Jon Pascua eta Jose Carrascosa ariko dira; arratsaldeko 16:00etan, berriz, Felix Sarriugarte, Juan Iribarren eta Joexan Lekue. Domeka goizean,

alderdi praktikoa landuko dute Larrakozelaian (Iurretakoko jokalariekin), Mikel Etxarri eta Gonzalo Arkonadagaz. Ondoren, berriz Gran Hotelen, Gari Fullaondo eta Jose Luis Mendilibarren txanda izango da.

Izen-ematea zabalik dago ekainaren 5era arte (90 euro, zapatuko bazkari barne). Modu bitara egin daiteke: gertasport@gmail.com helbidearen bidez edo 717 166 845 telefonora deituta. Informazio guztia eskuragarri dago euren webgunean: www.gertasport.com.



Antolatzaileak, Durangoko Gran Hotelen egindako aurkezpenean.

> TXIRRINDULARITZA

Durango-Durango klasika lehiatuko dute martitzenean

Durangoko Txirrindulari Elkarteak hamabigarren aldiz antolatu du datorren martitzenerako Durango-Durango emakumeen klasika. Aurtengoa eta aurrerantzeko denak Juan Mari Baliarren oroimenezkoak izango dira. Durangoko Txirrindulari Elkartearen presidentea izandako Baliar iaz hil zen.

Klasika 15:00etan hasiko da Ezkurdin. Iurreta, Abadiño,

Berriz, Elorrio, Atxondo eta Muniketan zehar osatutako zirkuituari lau itzuli emango dizkiote (110 km). UCI rankingeko hamar onenetatik zazpi egongo dira irteera puntuan, tartean Marianne Vos.

Aurten, aspaldiko partez, irteera eta helmuga leku berean egongo dira: Ezkurdin. Trena lurperatu izanak ahalbidetu du hori.



Durango Poliklinika estreinatuta berri dugu, **DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO** berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.

EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenarekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitekeen klaustrofobia sentsazioa saihesteko.

MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEAN!



Zatoz eta ezagutuz!

Intxaurren kalea, 19. DURANGO
(karmeldarren komentua zaharrean)

Tel.: 94.466.86.68
cddurango@gruposcanner.biz

> PILOTA

“Omenaldiko egunagaz akordatzen naiz gehien”

Juan Luis Elorza abadiñarrak profesionaletan debutatu zuela mende erdi bete da maiatzean; bigarren mailako txapela jantzi eta lehen mailan ere ibili zen



Juan Luis Elorza, Abadiñoako Tornosolo trinketearen aurrean; ondoko etxe blokean bizi da.

> JOSEBA DERTEANO

Batzuetan, ondo dator atzera begiratu eta egindako bideari erreparatzea. Gainerako kirolen antzera, gaur egungo esku pilotak eta pilotariak asko zor diete, esaterako, orain 50 urte Abadiñoako pilotalekuan entrenamendua hasi aurretik, kantxan zerrakin bustia zabaldu eta erratza pasatu behar zuten pilotariei. “Horrela kontatuta gezurra dirudi, baina orduan horrela ziren kontuak”, gogoratu du Juan Luis Elorzak (69 urte, Abadiño), profesionaletan debutatu zuenetik mende erdia bete denean.

Beste anekdota batek ere argi islatzen du esku pilotak kantxa barruan zein handik kanpora izan duen garapena: “Orduan goitik behera zuriz jokatu behar genuen. Abarketak egiteari utzi ziotenean, zapatillak erosten hasi ginen, eta nire zapatilla pareak marra urdin bat zuten barrenean. Enpresari batek esan zidan hurrengo partidurako marra hori zuriz pintatzeko. A ze alde, gaur egun Irujo kolore denetako zapatillekin jolasten ikustea”.

Elorzak 1963ko maiatzaren 19an debutatu zuen profesiona-

letan, Astelena pilotalekuan. Intxaurren arabarra aurrelari zuela, irabazi egin zuen Otxoa eta Llamaren kontrako partidua. Handik bost urtera, Astelena bertan eta pronostikoak apurtuz, bigarren mailako buruz buruko txapela jantzi zuen Del Val errioxarra menderatuta. Belauneko lesio batetik errekuperatu berri-tan, garaipen handia izan zen.

Lehen mailan ere jokatu zuen: “Bigarren mailan puntan genbiltzanok sarritan jokatzeko genuen lehenengo mailan. Orduko pilotari denen kontra jokatuakoa naiz”. Jesus Garcia-Ariño atxondarra eta Hilario Azkarate elorriarra ziren orduko izar batzuk. Lehen mailako buruz buruko txapelketan birritan parte hartu zuen. Lehenengoan, Bergara I.ak erraz irabazi zion Labriten. Bigarrenean, Andueza III.ari irabazi eta hurrengo fasean Tapia I.aren kontra galdu zuen. Eskuko minak ez zion bererik ematen utzi eta, hain zuzen, arrazoi horregatik uko egin zion aurrerantzean buruz buru lehiatzeari.

Profesionaletan 17 urte egin eta 1980an erretiratu zen. Handik urte bira, 1982an, omenaldia

egin zioten Eibarko Astelena, eta ordukoak ditu gomutarik ederrenak: “Beste denagaz baino, egun horretaz akordatzen naiz gehien. Lagunengandik jasotako berotasuna betiko geratzen da, ez da ahazten”. Panpi Ladutxe eta Oreja anaiak izan ziren omenaldi hartan parte hartu zuten pilotarietako batzuk.

Gaur egun, besteak beste, Zabaleta, Olaizola II.a eta Irujo ditu pilotari gustukoak: “Irujoren gaitasuna eta Olaizolaren burua batzen dituen pilotaririk balitz, hura bai behin betiko pilotaria!”, dio.



Elorza, 19 urtegar.

> JARDUNALDIK

Maiztegi eskolan kirol jardunaldiak gaur eta bihar

Maiztegi Herri Eskolan egiten diren eskolaz kanpoko kirol jardueren erakustaldiak eskainiko dituzte gaur eta bihar eskolako gaztetxoek (Lehen Hezkuntzakoek).

Barikuan, 17:00etatik aurrera, patinajea, ninjitsu eta herri kirol (giza proba, txinga eroatea...) erakustaldiak izango dira. Ostean, jardunaldiei kultur ukitua emanda, euskal dantzak erakutsiko dituzte.

Zapatuan, 09:45ean, krosa egingo dute. Aurten ez dira errepideko asfatora irten-go, eta eskolako belardi bat aprobetxatuko dute zirkuitua osatzeko. 11:00etan, futbito eta saskibalo partiduak hasiko dira. Guraso elkarteak edariak eta pintxoak salgai ipiniko dituzte egun osoan.

> FUTBOLA

Zapatuan, Vulcano eguna ospatuko dute Otxandion

Aurten seigarren bider, Otxandionko Vulcano futbol taldeak Vulcano Eguna antolatuko du zapatuak. 10:45etik aurrera futbol 7ko torneo jokatu dute futbol zelaian benjamin eta kimu mailetan. Benjaminetan, Lemoa, Zea-nuri, Igorre, Artea eta Vulcano I eta II taldeak ariko dira. Kimuetan, berriz, Aurrera, Abetxuko, Lakua eta Vulcano taldeak ibiliko dira nor baino norrago.

Pasealekun bazkaritara batu aurretik, trikipotea egingo dute jai giroa herri guztian zabalduz. 18:00etatik aurrera futbolin puzgarri bat atonduko dute plazan. Ondoren, 20:00 inguruan, falta jaurtiketa txapelketaren bigarren aldia egingo dute.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

Zegama-Aizkorri

Beste urtebetez, heldu da eta joan da egun handia, Zegama-Aizkorri maratonia. Mendiko lasterketen artean nagusia da, zalantzarik barik, korrikalari denek korritu nahiko luketen lasterketa magikoa. Mundu osoko lasterkaririk onenak etortzen dira Zegama-ara egun seinatu eta berezi honetan. Zoramena izaten da! Magikoa bezain gogorra da, baina. 42,195 kilometro ditu. Zegaman hasi eta Aratz, Aizkorri eta Andraitz mendiak igaro ostean, Zegaman amaitzen da. Baina ez du gortasunak bakarrik egiten berezi Zegama-Aizkorri mendi lasterketa. Bertan sortzen den giroak egiten du magiko maratoni hau. Milaka ikusle baten dira ibilbide osoan beren lagun eta familiartekoak animatzeko. Batez ere, Aizkorriko tontorrean biltzen da jende gehien. Ikusgarria eta zirrargarria da bertan bizitzen dena. Eta lasterketa ikustea zoragarria bada, zer esanik ez korritzeko aukera izatea, jende guztia norbera animatzen, oihiak nonahi... Beste inon bizi ez diren momentuak. Eta berdin dio zenbatgarren aldiz korritzen duzun, urte bakoitzean zirrara eta emozioa berdinak dira. Aurten ere hala izan da, eguraldi ezin hobearrekin irten dira korrikalariak Zegamako irteeratik, eta ikuskizun polita eskaini digute. Goraipatzekoa Kilian Jorneten seigarren garaipena, eta aurreneko bost neskek lortutako denborak, ikusgarriak denak.

Aipamen berezia merezi du baita ere, gure Euskal Selezioko kideen jardunak, maila handia eman baitute aurten-goan. Zorionak guztiei!



R.P.S. 214/08

A. Urreta podologa

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • Durango
Tel./Faxa: 94 621 54 04



Hurrengo eraikuntza

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

➤ Aisialdia

> GAZTE GARA GAZTE!

GARI ELUSTONDO | Elaia informatika enpresako zuzendaria

“Seme-alaben Interneterako sarbidea modu erraz, argi eta seguruan mugatu daiteke”

‘Router’ honek antibirusa barneratuta du eta Interneteko mehatxuen kontrako babesa eskaintzen du; dena gailu berean batuta



Guraso eta enpresa txikiei zuzendutako router berri hau Interneterako sarbidearen ‘zaindaria’ da. Erabiltzailea non eta zertan dabilen kontrolatu daiteke, eta mugak ipini, hala erabakiz gero. Gainera, segurtasun neurri denak (antibirusa...) batzen ditu. Erraz konfiguratzeko da. Munduan ez ei dago antzeko prestazioak eskaintzen dituen produkturik.

Zertan datza ‘router’-ak?

Interneten eta erabiltzailearen arteko hesi moduko bat da, erabiltzailea modu globalean babesten duena. Izan ere, gurasoei seme-alaben Interneterako sarbidea kontrolatzeko aukera

eskaintzen die, baina horrez gainera, antibirusa barneratuta dakar, eta Interneteko mehatxuen kontrako babesa ere eskaintzen du. Dena gailu berean batuta.

Nork garatu du?

Cyberoam enpresak garatu du NetGenie izeneko gailu hau. Segurtasunaren arloan enpresa erreferentea da. Orain arte, enpresa ertain eta handiei zuzendutako irtenbideak eskaini izan ditu. Orain, etxebizitzetara eta bulego zein enpresa txikietara zabaltu du eskaintza.

Zer abantaila eskainiko die gurasoei?

Laster, gazteek oporrak hartu

eta ordu libre asko izango dituzte, gurasoak lanean dauden bitartean. Router honek seme-alaben Interneterako sarbidea mugatzeko aukera eskaintzen du. Oso erabilerraza da, eta bost minutuan argi eta erraz konfiguratu daiteke. Ordenagailua Internetera konektatzean, automatikoki agertzen da konfiguratzeko modua. Hainbat aukera daude. Esaterako, adin tartean banatutako zerrenda aurredefinituak eskaintzen ditu. Bertan, seme-alaben adina aukeratu, eta adin horri begira sortu duten zerrenda agertzen da. Zerrenda moldatu egin daiteke, jakina, gura diren webguneak, sare sozialak edo atalak gehitu edo ken-

duta. Beste aukera bat da, adin tarteez gainera, konfigurazioa ordutegiaren arabera definitzea. Esaterako, ordu jakin batzuetan Interneta moztu daiteke, edo gauerdetik aurrera... Gura den moduan. Erabiltzaile bakoitzak bere konfigurazioa izango du eta, gura izanez gero, erabiltzaile bakoitzaren mugimendu guztiak txosten batean jaso ditzake. Router-a dudak argitzeko gidaliburu batekin eta telefono zenbaki batekin dator.

Enpresa txiki eta bulegoei begira, zer abantaila du?

Familientzako router bat sortu dute, eta enpresa txiki edo bulegoetarako beste bat. Bi dira,

baina oso antzekoak. Enpresei begira sortutakoak bestearren abantaila denak ditu (antibirusa, Interneterako sarbiderako kontrola...) eta, horri guztiari, beste bat gehitu diote: edonondik hamar gailu momentu berean konektatu daitezke, segurtasun neurri guztiekin. Beraz, etxetik lantegira konektatzeko aukera eskaintzen du.

Sistema denentzako bateragarria da?

Bai. Egun erabiltzen diren gailu gehienak konektatu daitezke: ohiko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, *Smartphoneak*, *Tabletak*... Gainera, sistema operatibo denekin bateragarria da: Windows, Mac OS, Linux... Beste hainbeste nabigatzaileekin ere: Safari, Internet Explorer, Mozilla... Beste abantaila bat da 3G USB bidez konektatzeko aukera eskaintzen duela.

Zelan eskuratu daiteke?

Dagoeneko eskuragarri dago www.elaia.es/netgeniehome webgunean, eta zuzenean etxean jaso dezakezu. Prezioa 124,50 euroan (BEZ barik) dago, baina gure bidez —enpresetan teknologia berriak txertatzen dituen Elaia enpresa— 109 euroan erosi daiteke (3 urterako balio duen lizentziagaz). Horretarako, nahikoa da gure webgunean sartu eta erreserba egiterakoan ‘ANBOTO’ kodea jartzea dagokion kutxan. Behin erreserba eginda, geu jarriko gara hartu-emanetan.

WEBGUNEAN:
www.elaia.es

TWITTER KONTUA:
@elaiait

elaia IT

eLAIA Information Technology S.L.

www.elaia.es - 94 640 98 98
Montorreta Ind. E11, 2L - Durango

Kodigoa:
ANBOTO
www.elaia.es/netgeniehome



~~124,5€~~
109€*

NetGenie **DENA BATEN**

1. Zure seme-alabek Interneten egiten dutena jakitea
2. Interneterako sarbidearen kontrola ordutegiaren arabera
3. Egokiak ez diren webguneetarako sarbidea blokeatzea
4. Web aplikazioen erabilera kontrolatzea
5. Zure ordenagailua kanpoko mehatxuetatik babestea



+ ANTIBIRUS LIZENTZIA

* Webgunean sartu eta kodigoa sartuta balidatutako promozioa



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezka • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, beheka • 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekotako etxebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekotako. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m². Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
